

	<b>Goierriko ekonomia arloko lan taldea</b>	
---	---	---

**Gaia:** 2007ko balorazioa eta proposamen berriak  
**Data:** 08/01/24 **Lekua:** Goieki, Ordizia Iraupena: 15.30 – 17.30

### Honako hauek bildu gara

- Jon Auzmendi (Praxair)
- Emilio Txurruka (Doilantegia)
- Juando Gaztañaga (Goilan)
- Nekane Arrizabalaga (GATC)
- Aitziber Makazaga (Aldabe)
- Jose M<sup>a</sup> Ormazabal (Goierri Fundazioa)
- Patxi Aierbe (Aralar-Zaldibiako udala)
- Patxi Plazaola (Beasaingo udala)
- Patxi Albisu (Lazkaoko udala)
- Edurne Albizu (Zegamako udala)
- Xabier (Zeraingo udala)
- Iker Galparsoro (Goieki)
- Niko Errasti (Goieki)
- Maialen Galparsoro (Goieki)
- Iker Azurmendi (Goieki)
- Niko Osinalde (Goitur)
- Miren Estensoro (Goieki)

### Lan programa

1. 2007an ekonomia mailan Goiekik aurrera eraman dituen ekimenen inguruko **informazioa ematea:** ZER EGIN DUGU AURTEN?
2. Orain arte ekonomia arloan egin diren ekimenak **baloratzea:** NOLA BALORATZEN DA EGIN DENA?
3. 2008an eskualde mailan aurrera eraman beharreko ingurumen **ekintza konkretuak proposatzea:** ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA? Ekintza proposatzeko taldetan batuko gara, ondoren hemen irtendakoa baloratzuz.


### Lanari ekin diogu

#### 1. ZER EGIN DUGU AURTEN?

Galdera honi erantzuteko, 2007an aurrera eraman diren ekimenen nondik norakoak azaldu ditugu, kasuan kasuko pertsonak aurkeztuz. Horrela jarraian aurkeztzen ditugu laburbilduz azaldu ziren puntuak.

**1. Eskualdean kontsumoa sustatzeko kanpainak diseinatu. Urteko merkatal txostena argitaratu.**

	<b>Goierriko plangintza estrategikoa</b>	
--	--	--

	<p><b>Goierriko ekonomia arloko lan taldea</b></p>	
---	--	---

2007ko ekintzak:

-Kontsumo Iraunkorraren sentsibilizazio kanpaina GOIMEN eta GATCrekin elkarlanean.

Datozen urteetan:

-Sentsibilizazio kanpaineekin jarraitu

-Merkataritza elkarteak inplikatu kanpaina hauetan: ORDIZIAN, BAREAK, ANTZARRAK...

## **2. Turismoaren promozioa eta merkaturatzea**

2007ko ekintzak:

- Goierriko mapa turistikoa
- Publizitatea, fam-press eta fam-trip-ak
- Euskal Herriko gune komertzialak
- Donostia-San Sebastián Turismoa
- www.goerriturismo.com

Hurrengo urteetan:

- Goierriko gida berria
- Publizitatea, fam-press eta fam-trip-ak
- Karpak azoka berrietan
- Eroski Bidaiak

## TURISMOAREN ANTOLAKUNTZA ETA DINAMIZAZIOA

2007ko ekintzak:

- Irekita eta irekitzeaz dauden museoek komisioak
- 2007-2010 Lehiakortasun plana
- Kalitatea: 51 enpresa
- Basquetour: marketing plana
- CIC-tourgune: berrikuntza

Hurrengo urteetan:

- Seinalitika
- Sentsibilizazio turistikoa
- Kalitatea: %100
- Museoen hilabetea
- Enpresak eta turismoa
- Goierri-Tolosaldea komisioa
- Basquetour: marketing plana
- CIC-tourgune: Web portala

## **3. Kolaborazio estrategia bultzatzea, bailarako enpresen lehiakortasuna hobetzeko.**

2007ko ekintzak:

Proiektuak:

- . CAF-5 Azpikontratistekin
- . ORKLI-2 Azpikontratistekin

	<p><b>Goierriko plangintza estrategikoa</b></p>	
<p>2 / 7</p>		

	<p><b>Goierriko ekonomia arloko lan taldea</b></p>	
---	--	---

. IRIZAR- Azpikontratista 1

Hurrengo urteetan:

. Kolaborazioarekin jarraitu.

**4. Industria. Eskualdean antzemandako beharren artean agente arteko ikerketa programa garrantzitsuak aukeratzea: proiektu multiagenteak**

2007ko ekintzak:

- CAFeri proposamena ikerketa proiektuetan kolaboratzeko.
- LORTEK eta CAF laserrari buruzko ikerketa linea bat garatzen ari dira, intek programaren bitartez.

**5. Goierri eskualdera enpresa ekimen berriak eta G+I unitate berriak erakartzen saiatu.**

2007ko ekintzak:

- Goieki-Goierri Fundazioaren arteko elkarlanaren biartez eskualdeko enpresen eskaerei aurre egiteko prestatu.
- Goierri Berrikuntza Gune bat sortzeko Bideragarritasuna aztertu: terrenoak, kokapena, eraikinak, aurrekontua, e.a.
- Diseinatu eta proiektua egin.
- Erakunde ezberdinekin bilerak antolatu proiektuaren babesa lortzeko asmoz

Hurrengo urteetan:

- Proiektuaren definizioa.
- Berrikuntza Gunea eraikitzen hasi.

**6. Enpresen, unibertsitatearen eta lanbide eskolaren artean profesionalak trukatzeko eta elkarren arteko harremanetarako bideak sortu, esperientzia bizirik eta irekita mantendu eta ikentzailetza/berrikuntza jarrerak bideratuz.**

Hurrengo urteetan:

- Oinarri teknologikoko Enpresa Gune bat martxan jartzea aztertuko da.
- Enpresa nagusienekin lankidetzak bideratuko da, balio erantsi altuko ekimen berritzaileak jaso ahal izateko
- BIC BERRILAN-ekin harremanak bideratu elkarlan posibleak aztertuko.

**7. Eskualdeko erakundearen artean foro iraunkor bat sortu berrikuntza eta ekintzailetza bideratuko dituzten baloreak sortzeko eta zabaltzeko aukera emateko**

2007ko ekintzak:

**1.INNOVA proiektua**

- Berritzaile izatea jakintzaren bidez emaitza ekonomiko eta sozialak lortzea da.
- Berritzaile izateak jarrera aldatzea eta konpromezu iraunkorra eskatzen du
- BERRIKUNTZA AGENDAK lagunduko digute berritzaileak, bai:

	<p><b>Goierriko plangintza estrategikoa</b></p>	
<p>3 / 7</p>		

	<p><b>Goierriko ekonomia arloko lan taldea</b></p>	
---	--	---

Produktuan  
 Prozesuan  
 Marketingean  
 Gestioan  
 Antolaketan etb.

Hurrengo urteetan:  
 Berrikuntza agendak enpresetan ezartzea eta enpresa txikien sarea sortzea.

**2. Adituen Foroa**

Bailarako enpresa traktoreen gerenteekin hiru bilera urtean, gai hauek aztertzeko:

- Gaur egungo egoera
- Foro zabalagoetan hartutako erabaki estrategikoen balorazioa
- . Akzio edo ekintzen ezartze praktikoa.

Hurrengo urteetan:  
 Talde honekin jarraitu bertara expertoren bat gehiago barneratuaz.

**3. VALORA-DOCUMENTA programa: eskualdeko baliabide sarearen MAPA BIRTUALA**

VALORA-DOCUMENTA (Europar Fondo Soziala 2007-2013):  
 Eskualdeko enpresa ororen eguneraturiko eta zehazturiko informazioa izatea uneoro.  
 Informazioaren zabalpen eta ulergarritasuna.

Hemendik sortu zen GOIERRIKO BALIABIDEEN MAPA BIRTUALA diseinatzearen ideia, zeinak euren kokapen eta banaketa geografikoari loturik agertuko diren baliabideen mapa birtuala suposatzen duen.

- Atariaren bisitariarentzat tresna praktiko eta erakargarria
- Zerbitzuaren teknikarientzat erabilerraza eta bertan bilduriko datuen neurgarritasuna
- Barneratu eta aldaturiko datuen berehalako eguneratzea (on-line informazioaren mantenua).
- Erabilizaile potentzialak:
  - Enpresa eta zerbitzu emaileak
  - Garapen agentzia eta udalak
  - Erakundeak
  - Informazioa aurkitu nahi duen edozein herritar

2007ko ekintzak:

Oarsoaldeko eskualdeko garapen agentziara jo da, OARSOALDEA S.A., maparen diseinurako kurtsoan parte hartzeko  
 § Enpresekin harremanetan jartzea, proiektua azaldu eta dagokion informazio bilketa eginez  
<http://www.oarsoaldea.es/mapa/goieki/flash/index.php>

2008rako ekintza nagusiak:

- Eskualdeko gainontzeko enpresa eta zerbitzu emaileei bisiten bitartez proiektua aurkezten jarraitzea.
- Mapa birtualaren mantenu eta diseinuarekin jarraitzea

	<p><b>Goierriko ekonomia arloko lan taldea</b></p>	
---	--	---

- Agentziaren informazio atari orokorraren osaketa, berritze nahiz eguneratzea

8. Agenda 21 industrial. Enpresentzako dohainikako ingurumen informazio eta aholkularitza zerbitzua.

2007ko ekintzak:

- Enpresei zuzenduriko ingurumen aholkularitza zerbitzua eskaini enpresak legedira egokitu daitezen:
  - Enpresei kasu bakoitzean ezartzen zaien legediaz informatu.
  - Legedira egokitzeko laguntza bat eskaini:
    - 26 enpresek aktibitate proiektua aurkeztu dute eta 2-k irekitze lizentzia.
    - 34 enpresei lurzoruen atariko txostena aurkeztu dute
    - Atmosferako 7fokuen legalizazioa martxan dago
    - 11 enpresa hondakin arriskutsuen ekoizleen erregistroan izena eman dute eta beste 11 hondakin inerteenean.
      - 140 kontsulta bideratu dira.
      - 2 formazio ekitaldi eman dira
  - Hondakinen kudeaketa.
  - Enpresa txiki eta ertainei
    - "Enpresa ingurugiro legedira egokitzeko gida" argitaratu da.
    - ORKLLra bisita ingurumen praktika onak ezagutzeko
    - Web atala argitaratu, subentzioen tramitazioa eta abar.

2008rako ekintza nagusiak:

- Martxan dagoen zerbitzua mantendu enpresei laguntza bat emanez ingurumen legedira egokitzeko (jarduera eta irekitze lizentziak, hondakinen kudeaketa, lur-zoru kutsatuak, emisioak, eta abar).
- "Enpresan burututako ingurumen proiektu onenaren sariketa".
- Formazioa.
- Enpresa ezberdinetara bisitak antolatu ingurumen praktika onak ezagutzera emateko enpresen artean.
- Enpresetan edo poligonoetan mugikortasun planak martxan jartzeko aukerak balioetsi.

## 2. NOLA BALORATZEN DA EGIN DENA?

2007.urtean zehar aurrera eramaniko ekintzen balorazioa egiteko orduan, esan behar da ez dela aurkeztu diren ekintzekiko balorazio zuzenik egin. Konkretuki, datorren urtera begira komenigarri liratekeen ekintzei egin zaie erreferentzia eta hain zuzen, eskualdeko enpresa eta gainontzeko agenteen arteko **harremanen eta sarearen sakontzearen** aukera azaldu da (Juandok azaldua). Hain zuzen, azkenaldian gertaturiko gertaera eta hainbat adibideren ikerketa eginaz, agente arteko komunikazio eza eta bakoitzak bere aldetik lana egitearen errealitatea azalerazi nahi izan da eta beraz, egoera honen aurrean ekintzak bideratu beharra ikusi da.

Bestetik, laburki egindako lanaren **balorazio positibo** bat egin dela esan genezake.

## 3. ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA?

	<p><b>Goierriko plangintza estrategikoa</b></p>	
<p>5 / 7</p>		

Honen ondotik horrela, hemendik aurrera egin ahal diren ekintzen proposamenera jo dugu, horretarako taldetan banatu garelarik. Hain zuzen, hiru taldetan banatu gara:

#### 1.TALDEA. LEHEN SEKTOREA ETA TURISMOA

Partaideak: Nekane (GATC), Aitziber (Aldabe), Xabier (Zerain), Edurne (Zegama), Niko Osinalde (Goitur) eta Iker A. (Goieki).

#### 2.TALDEA. INDUSTRIA

Partaideak: Jon (Praxair), Emilio (Doilantegia), Jose M<sup>a</sup> (Goierri), Koli (Zaldibia), Patxi (Beasain), Niko Errasti (Goieki) eta Miren (Goieki)

#### 3.TALDEA. BERRIKUNTZA ETA SUSTAPENA

Partaideak: Juando (Goilan), Patxi (Lazkao), Iker G.(Goieki) eta Maialen (Goieki).

Ikusi bezala, foroan parte hartu duten agenteen artean, bakoitzak bere interesaren arabera aukeratu du zein taldetan ezarri eta ondorioz, irizpide hori erabili da hauek sortzeko.

Bestetik, talde bakoitzari, taldean jorratzen zen gaiaren arabera, aurreko foroan definituriko ekintzen zerrenda eskurarazi zitzaion, hain zuzen ekintza hauen berri izan eta izandako bidez informatzeko. Hain zuzen, kolore ezberdinak erabili ziren, landu ez diren ekintzak (beltzez), hasitakoak (berdez) edo amaitzear daudenak (gorriz) zein diren jakin ahal izateko.

Hona hemen taldekako lan honetatik jasotako ekintzen zerrenda eta ondoren talde osoak baturik, jaso zuten balorazioa:

EKINTZAK	
1. Turismo marketing plana (Goierri kanpoan saldu)	1 ● 5 ●
2. Turismo arloan lan egin nahi duten horiek bilatu eta prestakuntza praktikoa eman)	0 ● 1 ●
3. Kontsumo kanpainak bultzatu, herri txikiak denden ordutegiaren arazoari konponbide bat bilatuz	1 ● 2 ●
4. Enpresen ideiak aztertu eta enpresen hornitzaileak aztertu enpresa berriak sortzeko: 8.ekintzan barneratzen da ideia hau	
5. <b>Balio erantsi altuko enpresak sortu eta erakarri</b>	7 ● 6 ●
6. Atzerriko eredu ekintzaile arrakastatsuenak aztertu	0 ● 0 ●
7. Lehiaketaren inguruan erreflexio bat egin	0 ● 1 ●

- 8. Enpresa eta gainontzeko eragile ezberdinen artean osaturiko sare bat bultzatu** 5 ● 6 ●
9. Jardunaldiak (informal kutsukoak) antolatu : aurreko ekintzan barneratzen da
10. Gazteengana zuzenduriko sentsibilizazio kanpaina bat diseinatu, eskualdeko lan merkatuaren inguruan 0 ● 5 ●
11. Nekazal sektorearen egoera eta etorkizunaren inguruan hausnarketa bultzatu 1 ● 4 ●

Beraz, dagokion balorazioa egin ondoren bi ekintza azpimarra genitzake garrantzitsuenen modura, ondorengoak hurrenez hurren:

**- Balio erantsi altuko enpresak sortu eta erakarri (Berrikuntza Gunea)**

**- Enpresa eta gainontzeko eragile ezberdinen artean osaturiko sare bat bultzatu**

Bestetik, gainontzeko ekintzen artean turismo marketing plana, nekazal sektoreari arreta ezartzea eta gazteenganako sentsibilizazio kanpainari ekitea izan dira hurrenez hurren ekintza baloratuenak.

### Hemendik aurrera, zer?

Proposaturiko ekintza guzti hauek Goiekiko Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaizkio eta honek onartu ostean, ekintzak martxan jartzeko lan programa definituko dugu.

Honenbestez, amaitutzat jotzen dugu 2007.urteari dagokion Arlo Ekonomikoko foroa eta hurrengo urtean ikusiko garelakoan agurtzen gara.